



**IBARRAKO UDALA**  
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

## UDALBATZAREN OSAKETA COMPOSICION DEL PLENO MUNICIPAL

ZINEGOTZIAK	TALDE POLITIKOA	KARGUA
Igor Zapirain Lizarribar	EH BILDU	ALKATEA
Nagore Zubillaga Garmendia	EH BILDU	ALKATE ORDEA GIZARTE ZERBITZUETAKO ZINEGOTZIA
Luis Lasa Muñagorri	EH BILDU	
Agurtzane Arribillaga Uranga	EH BILDU	
Aitor Jimenez Iparragirre	EH BILDU	
Cristina Martinez Arnaiz	EH BILDU	
Maria Iciar Jauregui Huarte	EAJ-PNV	
Juan Luis Cid Conde	EAJ-PNV	
Rodrigo Vilar Aranda	EAJ-PNV	
Juan Maria Caballero Arellano	EAJ-PNV	
Felix Asensio Robles	PSE	

2019ko uztailaren 9an buruturiko Udalbatzan, Udal eraketaren inguruan honako erabakiak onartu ziren:

### **BIGARRENA**

#### **2.- UDALBATZA BILKUREN ANIZKOTASUNA EZARTZEA**

7/1985 Legeak, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 46. artikuluan xedatutakoa hartu da kontuan, bai eta Toki-korporazioen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide-juridikoari



**IBARRAKO UDALA**  
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

buruzko arautegiak 77. eta 78. artikuluetan xedatutakoa ere, zeinetan Udalbatzarrak ohiko bilkura gutxienez hiru hilabetean behin egin behar duela ezartzen den eta udalbatzarrari dagokiola bilkura horien aldizkakotasuna ezartzea esaten den.

Alkateak, udalbatzarra osatzen duten kideei Udalbatzarraren ohiko bilkurak 2 hilabetetik behin egitea proposatu die, 2.hilabetetik behin egitea, hile bakoitietan bigarren asteko ostegunean arratsaldeko 19:00 etan eta ez-ohiko bilkurak aldiz; gaiak hala eskatzen duenean, Udalbatzarra osatzen duten legezko kideen laurdenak hala eskatzen duenean edo udalburuak hala erabakitzen duenean egingo direla oroitarazi du.

Udalbatzak, 6 aldeko botorekin, (BILDU ) eta eta 4 abstentziorekin (EAJ-PNV ) honako hau

ERABAKITZEN DU

**BAKARRA: Ibarra Udaleko Udalbatzarren ohiko bilkurak 2 hilabetetik behin egitea, hile bakoitietan bigarren asteko ostegunean arratsaldeko 19:00 etan eta ezohizko bilkurak gaiak aldiz; hala eskatzen duenean, Udalbatzarra osatzen duten legezko kideen laurdenak hala eskatzen duenean edo udalburuak hala erabakitzen duenean egingo dira.**